



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

### TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTA

**Batzordea:** Tokiko Gobernu Batzarra

**Bilera-zenbakia:** 2022ICGO0001

**Eguna:** 2022-01-25

**Ordua:** 18:30 – 18:50

**Tokia:** Alkatetza

#### Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa .....Astigarragako EH BILDU
- Aintzane Barandiaran Ezponda.....Astigarragako EH BILDU
- Andoni Gartzia Arruabarrena.....Astigarragako EH BILDU
- Nerea Zusberro Alberro.....Astigarragako EAJ-PNV-

#### Bertaratu ez direnak

- Mikel Durán Gonzalo.....Udal-talde Sozialista

#### Idazkaria

Kontxi Urdampilleta Santamaría

#### Aztergaiak

Alkateak proposatu du premiaz gai zerrendan sartzea liburutegiko laguntzaile lanpostu bat betetzeko lehiaketa-oposizio librerako oinarrien aldaketa.

El alcalde propone la inclusión en el orden del día de la modificación de las bases del concurso-oposición libre para la provisión de una plaza de auxiliar de biblioteca.

Gaiak sartzearen arrazoiak azaldu ondoren, bozkatzera ekin zaio eta aho batez onartu da gia aztertea.

Tras explicar los motivos para incluir el tema, se somete a votación y se aprueba por unanimidad analizar el mismo.

EGUNeko AZTERGAIK	Zk / Nº	ORDEN DEL DIA
2021eko abenduaren 22ko akta onartzea.	1.	Aprobación del acta de 22 de diciembre de 2021.
2020 HSAN0005 zehapenespedientea ebatzi zuen 2020ko azaroaren 6ko akordioaren aurka jarritako berraztertzeo errekurtsua	2.	Recurso de reposición interpuesto contra el acuerdo de 6 de noviembre de 2020 por el que se resolvió el expediente sancionador 2020HSAN0005.
Urumea kaleko etxebizitza baten gaineko lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea.	3.	Derecho de tanto y retracto sobre una vivienda de Urumea kalea.
2020-2023ko dirulaguntzen Plan estrategikoaren aldaketa.	4.	Plan Estratégico de subvenciones 2020-2023. Modificación.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

Dirulaguntza izenduna Andre Maria Zeruratze parrokiari, alokairu sozialera bideratuko diren etxebizitzak egokitzeko obretarako	5.	Subvención nominativa a la parroquia Andre Maria Zeruratze para obras de acondicionamiento de las viviendas a destinar a alquiler social. sociales.
Kontrazioa-espeditentea: Erribera kulturguneko zerbitzu tekniko-espeditentea eta publikoaren arreta zerbitzua	6.	Expediente de contratación: servicio técnico-escénico y de atención al público de Erribera kulturgunea.
Liburutegiko laguntzaile lanpostu bat betetzeko lehiaketa-oposizio librerako oinarrien aldaketa.	7.	Modificación de las bases del concurso-oposición libre para la provisión de una plaza de auxiliar de biblioteca.
Informazio, galdera eta eskariak	8.	Información, ruegos y preguntas.

### Esan-eginak eta erabakiak

#### 1.-2021eko abenduaren 22ko akta onartzea.

#### 1.-Aprobación del acta de 22 de diciembre de 2021.

Akta aho batez onartu egin da.

Se aprueba el acta por unanimidad

#### 2.-2020 HSAN0005 zehapenespedientea ebatzi zuen 2020ko azaroaren 6ko akordioaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa

#### 2.- Recurso de reposición interpuesto contra el acuerdo de 6 de noviembre de 2020 por el que se resolvió el expediente sancionador 2020HSAN0005.

Alkateak zehapen-espeditentearen nondik norakoak azaldu ditu, baita espeditentearen ebazpenaren aurka aurkeztutako berraztertze-errekurtsoaren inguruan hirigintzako udal aholkulari juridikoak egin duen txostena ere; eta akordio-proposamen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

El alcalde explica el contenido del expediente sancionador, así como el informe emitido por la asesora jurídica de urbanismo en relación con el recurso de reposición interpuesto contra la resolución del expediente, y y presenta la siguiente propuesta de acuerdo para su aprobación:

**Lehen.**- Pablo Escudero Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko azaroaren 6an hartutako erabakiaren aurka jarritako berraztertze errekurtsoa ezestea, 2022ko urtarrilaren 7ko txosten juridikoan oinarrituta.

**Primero.**- Desestimar el recurso de reposición interpuesto por Pablo Escudero contra acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 6 de noviembre de 2020, en base al informe jurídico de fecha 7 de enero de 2022.

**Bigarrena.**- Pablo Escudero 5.001 euroko isuna ordaintzeko eskatzea, Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 28, 207 eta 225. artikulua eta Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorra ez betetzeagatik.

**Segundo.**- Requerir a Pablo Escudero a que abone la multa de 5.001 euros, por incumplir los artículos 28, 207 y 225 de la Ley 2/2006 de suelo y urbanismo del País Vasco y el Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga.

**Hirugarrena.**- Pablo Escudero jakinaraztea hartutako erabakia eta txosten juridikoaren kopia bat bidaltzea

**Tercero.**- Notificar el acuerdo adoptado a Pablo Escudero y remitirle una copia del informe jurídico

**Laugarrena.**- Erabakia kontu-hartzaileari

**Cuarto.**- Remitir el acuerdo a la Interventora para



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

helaraztea, 5.001 €ordaintzeko eska dezan.

que proceda a requerir el abono de los 5.001 €.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### 3.Urumea kaleko etxebizitza baten gaineko lehentasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea

### 3.- Derecho de tanto y retracto sobre una vivienda de Urumea kalea.

Alkateak horrelako espediente baten izapidetzearen nondik norakoak azaldu ditu eta adierazi du orain arte udalak ez duela lehentasunez erosteko eskubidea gauzatu, eta dirudienez hori dela herritar honi telefonoz esan zitzaiona, eta eskaera idatziz aurkeztu duenean, eskubidea erabiltzeak kalte handiak eragingo lituzkeela. Gaineratu du, BOE etxebizitza jabe guztiei idatzi bat bidaliko zaiela, jakinarazteko udalaren asmoa dela etxebizitza horietan lehentasunez erosteko eskubidea gauzatzearena.

El alcalde expone los pormenores de la tramitación de este tipo de expedientes, señalando que hasta la fecha el Ayuntamiento no ha ejercido el derecho de tanteo, que parece ser que es lo que se le comentó por teléfono a esta ciudadana, y que para cuando ha presentado la solicitud por escrito, el ejercitar el derecho tendría unos perjuicios importantes. Añade que se enviará un escrito a todos las propietarias y propietarios de, comunicando que es intención del Ayuntamiento ejercitar el derecho de tanteo sobre dichas viviendas.

Jarraian, Ogasuna eta Ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin

A continuación presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de Hacienda y Patrimonio

**Lehenengoa.-** Urumea kalean dagoen babes ofizialeko etxebizitza, 6. ataria, 1. solairua, E zenbaki, eta bere eranskinak lehentasunez erosteko eskubidea **EZ GAUZATZEA.** (expediente-zenbakia: **EB3-0240/13-LE-010**).

**Primero.-** **NO EJERCITAR** el derecho de tanteo sobre la vivienda de protección oficial sita en Urumea Kalea, portal 6, piso 1º, letra E, y sus anejos con el número de expediente **EB3-0240/13-LE-010**.

**Bigarrena.-** Ebazpen hau Saray Alonso Martínez andreari jakinaraztea.

**Segundo.-** Notificar la presente resolución a Doña Saray Alonso Martínez.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### 4.-2020-2023ko dirulaguntzen Plan estrategikoaren aldaketa

### 4.-Plan Estratégico de subvenciones 2020-2023. Modificación.

Alkateak adierazi du 2022ko aurrekontua onartzeak, plan estrategikoa aldatu edo egokitu beharra dakarrela.

El alcalde señala que la aprobación del presupuesto de 2022 implica tener que modificar o adaptar l plan estratégico.

Jarrian, Ogasuna eta Ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua

A continuación presenta para su aprobación el siguiente dictamen de la Comisión Informativa de



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

izan dadin:

Hacienda y Patrimonio

**Lehena.-** *Dirulaguntzen 2020-2023 Plan Estrategikoaren aldaketa onartzea, erantsitako dokumentuan agertzen den bezala.*

**Primero.-** *Aprobar la modificación al Plan Estratégico de subvenciones 2020-2023 tal y como aparece en el documento adjunto.*

**Bigarrena.-** *Dirulaguntzen Plan Estregikoaren aldaketa webgunean argitaratzea.*

**Segundo.-** *Publicar en la página web la modificación del Plan Estratégico de subvenciones.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### 5.-Dirulaguntza izenduna Andre Maria Zeruratze parrokiari, alokairu sozialera bideratuko diren etxebizitzak egokitzeko obretarako

### 5.-Subvención nominativa a la parroquia Andre Maria Zeruratze para obras de acondicionamiento de las viviendas a destinar a alquiler social. sociales.

Alkateak azaldu du 2020an hitzarmen bat sinatu zela parrokiarekin, parrokia-etxeke etxebizitzan gozamina lagatzeko eta horik alokairu sozialera bideratzeko, eta, konpentsazio gisa, Udalak hiru urtez etxebizitza horien egokitzapen obrak finantzatzeko dirulaguntza eman behar zuela.

El alcalde explica que en el 2020 se firmó un convenio con la parroquia para ceder el usufructo de las viviendas de la casa parroquial, y destinarlas a alquiler social, y que en compensación el Ayuntamiento concedería durante tres años una subvención para financiar las obras de acondicionamiento de las mismas.

Jarraian, gizarte zerbtzuak eta adineko pertsonan batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

A continuación, presenta , para su aprobación, el siguiente dictamen de la comisión informativa de servicios sociales y personas mayores:

**Lehena.-**2022. urtean, Andra Maria Zeruratze parrokiari 8000 euroko diru-laguntza izenduna ematea, alokairu sozialerako etxebizitzak egokitzeko egindako arotzeriako(zurezkoa eta metalezkoa) lanak ordaintzeko.

**Primero.-** *Conceder, en el año 2022, a la parroquia Andra Maria Zeruratze una subvención nominativa de 8000 euros, para costear las obras de carpintería(madera y metal) ejecutadas para adecuar las viviendas a destinar a alquiler social.*

**Bigarrena.-** *Dirulagintzaren baldintzak-horien artean ordainketa era- arautzen dituen hitzarmena eta araututako konpromisoak onartzea.*

**Segundo.-** *Aprobar el convenio en el que se establecen las condiciones de la subvención-entre ellas, la forma de pago-así como los compromisos que se asumen.*

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### 6.-Kontrazioa-espeditzea: Erribera kulturguneko zerbitzu tekniko-eszenikoa eta publikoaren arreta zerbitzua

### 6.-Expediente de contratación: servicio técnicoescénico y de atención al público de Erribera kulturgunea.

Alkateak Ogasuna eta Ondarea batzorde

El alcalde ha presentado, para su aprobación, el



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin:

**Lehena.-** Zerbitzu-kontratu honetarako prestatu diren baldintza plegu teknikoa eta administratiboak onartzea.

**Bigarrena.-** Kontratazio espedientea onartzea eta esleipen prozedurari hasiera ematea.

Udal idazkariak azaldu du kultur teknikariak (zerbitzu-kontratuaren arduraduna izango dena), baldintza administratiboetan aldaketa bat egitea proposatu duela, hain zuzen, B kartazala baloratzeko irizpide berri bat, eta horren nondik norakoak azaldu ditu.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta **aho batez onartu** dira, baldintza administratiboetan udal teknikariak egindako aldaketa txertatzea, baita irizpena ere.

siguiente dictamen de la Comisión de Hacienda y Patrimonio:

**Primero.-** Aprobar los pliegos de condiciones técnicas y administrativas que se han elaborado para este contrato de servicios.

**Segundo.-** Aprobar el expediente de contratación y dar comienzo al procedimiento de adjudicación.

La Secretaria municipal explica que la técnico de cultura (responsable de este contrato de servicios), en concreto ha solicitado que se incluya un nuevo criterio de valoración, explicando los pormenores del mismo.

A continuación se somete a votación y se **aprueban por unanimidad** la incorporación de la modificación de las condiciones administrativas propuesta por la técnica municipal, así como el dictamen.

### 7.- Liburutegiko laguntzaile lanpostu bat betetzeko lehiaketa-oposizio librerako oinarrien aldaketa.

Alkateak azaldu du hautaketa-prozesuko oinarriak argitaratu zirenean, Jaurlaritzak alderdi batzuen azalpenak eskatu zituela, eta horiek erantzun ondoren, bi hilabetetara eskatu duela lehiaketa-fasearen esperientziaren atala moldatzea.

Gaineratu du Jaurlaritzak adierazi duela ez dela beharrezkoa izenemate epe berria irekitzea, aurrerantzean egon daitezkeen arazoak ekiditeko.

Jarraian, akordioa hau hartzea proposatu du:

**Lehenengoa.-** Liburutegiko laguntzaile plaza bat betetzeko lehiaketa-oposizio librearen oinarriak aldatzea, lehiaketa-faseko lan-esperientziaren balorazioari dagokionez (9.2 oinarria), eta honela baloratzea:

“— Lan esperientzia, gehienez 24 puntu.

### 7.- Modificación de las bases del concurso-oposición libre para la provisión de una plaza de auxiliar de biblioteca.

El alcalde explica que cuando se publicaron las bases del proceso selectivo, el Gobierno Vasco solicitó información sobre algunos aspectos y que tras responder a los mismos, a los dos meses ha solicitado que se modifique el apartado de experiencia de la fase de concurso.

Añade que el Gobierno Vasco ha manifestado que no es necesario abrir un nuevo plazo de inscripción, pero que se ha considerado más adecuado para evitar futuros problemas.

A continuación, propone adoptar el siguiente acuerdo:

**Primero.-** Modificar las bases del concurso-oposición libre para la provisión de una plaza de auxiliar de biblioteca, en cuanto a la valoración de la experiencia laboral de la fase de concurso se refiere (base 9.2), y valorarlas del siguiente modo:

“— Experiencia profesional, hasta un máximo de 24 puntos.



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

1. Toki-administrazioetan, edo beste edozein administrazio publikotan, liburutegi laguntzaile gisa zerbitzuak emateagatik: 0,4 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko. Gehienez 24 puntuz balioetsiko da.

2. Euskadiko Liburutegi Sistematan edo Euskadiko irakurketa publikoko sarean dauden titulartasun pribatuko liburutegietan liburutegi-laguntzaile lanak egin izateagatik: 0,1 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko. Gehienez 6 puntuz balioetsiko da.

Aipatutako puntuaziok lanaldi osorako kontratu edo izendapenetan aplikatuko dira. Lanaldi partzialetan dagokion koefiziente zuzentzailea aplikatuko da.

Administrazio publikoak edo enpresa pribatuak emandako egiaztagirien bidez akreditatu beharko da esperientzia, eta kontratuaren edo izendapenaren iraupena, lanaldia eta betetako funtzioak adierazi beharko dira. Horretaz gain, izangaien lanbizitza kreditatzen duen dokumentua ere aurkeztu beharko da, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak emandakoa.

Astigarragako Udalean egindako zerbitzuak eta bertan jasotako lanbide esperientzia, betiere eskabidean alegatu badira, ez dira dokumentu bidez egiaztatu behar. Zerbitzu horiek izangaien espediente pertsonaletan jasotako datuetan oinarrituz baloratuko dira.”

**Bigarrena.**- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren web-orrian ([www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus)) argitaratzea egindako aldaketa, eta laburpen bat Estatuko Aldizkari Ofizialean.

**Hirugarrena.**- Eskabideak aurkezteko 20 egun balioduneko beste epe bat irekitzea, deialdia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Jarraian bozkatzera ekin zaio, eta irizpena **aho batez onartu** da.

1. Por la prestación de servicios en administraciones locales, o en cualquier otra administración pública, como auxiliar de biblioteca, a razón de 0,4 puntos por mes trabajado. Se valorará con un máximo de 24 puntos.

2. Por la prestación de servicios como auxiliar de biblioteca en bibliotecas de titularidad privada incorporadas al Sistema Bibliotecario de Euskadi o a la red de lectura pública de Euskadi a razón de 0,1 punto por mes trabajado. Se valorará con un máximo de 6 puntos.

Las puntuaciones referidas se aplicarán a contratos o nombramientos a jornada completa. En el supuesto de jornada parcial, se aplicará el coeficiente corrector correspondiente.

La experiencia deberá acreditarse mediante certificados emitidos por administraciones públicas o empresas privadas, en los que deberá figurar la duración del contrato o del nombramiento, la jornada y las funciones desempeñadas. También deberá presentarse el documento acreditativo de la vida laboral de las personas candidatas, emitido por el Instituto Nacional de Seguridad Social.

Los servicios prestados en el Ayuntamiento de Astigarraga, siempre y cuando hayan sido alegados en la instancia, no habrá que acreditarlos documentalmente y se valorarán en base a los datos que obren en los expedientes personales de las personas candidatas.

**Segundo.**- Publicar en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en la página web del Ayuntamiento ([www.astigarraga.eus](http://www.astigarraga.eus)) la modificación realizada, y un extracto en el Boletín Oficial del Estado.

**Tercero.**- Abrir un nuevo plazo de presentación de solicitudes de 20 días hábiles, contados a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del Estado.

A continuación se procede a votar y se **aprueba** el dictamen por **unanimidad**.

### **8.- Informazio, galdera eta eskariak.**

### **8.- Información, ruegos y preguntas.**



## Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría  
idazkaritza@astigarraga.eus

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2022ko urtarrilaren 25ean

Kontxi Urdampilleta Santamaría  
Ordezko udal-idazkaria